

# Azak makilakadaka



**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Nondik norako oporrak antolatzeko garaian, landareak aitzakia izan ohi dituenik bada: goi-mendietako baso, oihan tropikal, jardin botaniko, lorategiren bat, gereziendoen loraldia... Egia esan, nonahi dago landaretik eta joaten zaren tokira eramaten zaituztela, berdin dio, zer ikasia izango duzu. Hala ere, aurtengo oporraldiarekin zalantzetan eta nola moldatu ezinik bazabiltza, Atlantikoa proposatu nahi dizut: Anglo-normandiar uharteak.

Uharte horiek toki xelebrea dira. Ingalaterrako erreginarene menpeko dira, baina ez dira Erresuma Batuen parte, ezta Europar Batasunarena ere. Historia berezia dute, eta Ingalaterra eta Normandia artean egoteak baldintzatu ditu bertakoen bilakaera eta kultura. Klima latza dute, eta horrek bizimodua behartu du: aza jale amorratuak dira. Antza dute Atlantikoko haizeteek gogor erasotzen duten beste mutur batekin, Galizia-ekin, eta uztarrarian lotzen dituen hedeak aza da. Aza berezi bat: *Brassica oleracea* var. *longata*. Gallego-azak bezala, ez du bururik egiten, eta hostoz hosto jaten da. Hostaia aziendari eman izan zaio, behikundeari eta artaldeei batez ere. "Aza-hostokako" eta "aza-hostokatzeko" deitzen zaio euskaraz. Hostoak kendu ahala muturreko kimuak berriak ematen



CH-INFO.CH (CC-BY SA)

*Goiko argazkian, Ingalaterra eta Normandia arteko Jersey uhartearen kostaldea. Eskuinean, bertako Jacquelyn eta Philip Johnsonek aza-hostokakoaren enborrekin egindako makilak. Gaur haiek dira egile bakarrak, baina duela mende bat 30.000 aza makila inguru esportatzen ziren urtean.*

ten ditu, luza eta luza eginez. Pixkanaka enbor soildua gero eta luzeagoa azalduko du. Sei metro artekoak neurtu izan dira. Bai, bai sei metro! Azaren zuztar hori makilak egiteko erabili izan dute. Udazkenean moztu, behar bezala lehortu eta izugarritzko zur dotorea lortzen da. Ondoren eskura leuntzeko lisatu eta berniza edo argizaria ematen zaio. Duela mende bat, urtean 30.000 aza makila inguru esportatzen zuten. Gaur



JACQUELYN & PHILIP JOHNSON

egun etxe bakar batean soilik egiten dituzte, Jacquelyn eta Philip Johnsonek. Oporraldian bisitatu nahi ez badituzu, 60 euro eskasengatik etxera ere bidaltzen dizute. Edo, hobea dena, saltzen dituzten haziak erosi (50 ale, 4 euro) eta zerorrek sortu makiletarako aza-zutarrak. Beno, aza non haziko den, aza-zurtoina, aza-zutarra, aza-kirtena, aza-zangarra, aza-zangoa, aza-girtaina, aza-ipurdia, aza-ondoa, aza-orpoa, aza-trontxela, aza-trukutza, aza-truxa edo izango da... Izan ere, euskaldunona kultura atlantiarra izan... ■



**AXPE**  
SAGARDOTEGIA

Axpe baserria, Abxondo auzoa  
48270 Markina- Xemein (Bizkaia)  
☎ 946-168285/ 655734625  
[axpesagardoa@yahoo.es](mailto:axpesagardoa@yahoo.es)  
[www.axpesagardoa.es](http://www.axpesagardoa.es)

